

**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

Prentsa oharra
2025-02-12

Greba zikloaren bigarren txandan sartuko gara Hezkuntza Saileko irakasle, sukaldari eta garbitzaileak

Urtarrileko greben jarraipena eta babes zabalaren ondoren, Hezkuntza Sailak balizko proposamenik helarazi gabe jarraitzen du eta, beraz, **greba dinamikarekin aurrera jotzeko bidea besterik ez digu uzten.**

LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuok urtarrileko hezkuntza publikoan deitutako grebek jarraipen eta babes oso zabala izan dute langileen aldetik. Jaurlaritza, gehiegizko zerbitzu minimoekin (eta familia zein lankideei zuzendutako gutunekin) grebak baldintzatzen saiatu den arren. **Oso positiboki baloratzen dugu, beraz, greben jarraipena.**

Langileek mezu argia bidali diote Hezkuntza Sailari, baina honek grebetan aldarrikatu ditugun eskaerei erantzunik eman gabe jarraitzen du. Beraz, **otsailerako deitutako grebekin aurrera egingo dugu.** Otsailaren 19 eta 20an sukalde eta garbiketan, eta otsailaren 26 eta 27an irakasleetan.

Hauek dira grebetako aldarrikapen nagusiak: plantillak gazte-berritzeko neurrietan aurrerapausoak ezarri, eros-ahalmena berreskuratu, enplegua bermatu, lizentzia eta baimenak hobetu eta osasun, euskara eta hezkidetzaren arloan hobekuntzak ezarri. Irakaslegoan, besteak beste, irakastorduek jaitsi eta burokrasia gutxitu eta sukalde eta garbiketan, funtzioak zehaztu, kategoriak egokitu eta pribatizazioari mugak jarri.

Bikain ari gara langileok, indartsu gaude! Greba dinamikarekin jarraitu eta kaleak bete behar ditugu Hezkuntza Sailak gure aldarrikapenei erantzun egokia eman arte, lan hitzarmen berriak lortu arte. **Argi dugu langileen mobilizazioarekin batera gure lan baldintzak hobetzeko negoziazio errealia lortuko dugula.**

Horregatik LAB, STEILAS, ELA eta CCOO sindikatuok aurkeztutako mobilizazio eta **greba dinamikarekin batera, otsailaren 18an** ondorengo hiri zein herrietan, **arratsaldean antolatuko ditugun elkarretaratzeetan parte hartzera deitzen zaituztegu:**

- **Gipuzkoan:** Donostia, Hernani, Arrasate, Beasain eta Orereta.
- **Bizkaian:** Bilbo, Durango, Gernikan, Igorre eta Balmaseda.
- **Araban:** Gasteiz eta Laudio.


Otsailean tinko jarraitzeko garaia da, denok grebara! Denok kalera!

LAB

steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

CCOO
irakaskuntza



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

Nota de prensa

12-02-2025

El profesorado y el personal de cocina y limpieza del Departamento de educación entramos en el segundo turno del ciclo de huelga

Tras el amplio apoyo y seguimiento de las huelgas de enero, el Departamento de Educación sigue sin trasladarnos propuestas válidas, por lo que **no nos deja más opción que seguir con la dinámica de la huelga.**

Las huelgas convocadas en enero por los sindicatos LAB, STEILAS, ELA y CCOO en la educación pública han tenido un seguimiento y un apoyo muy amplio por parte de los y las trabajadoras. A pesar de que el Gobierno Vasco ha intentado condicionar las huelgas con servicios mínimos excesivos (y cartas a familias). **Valoramos, por lo tanto, muy positivamente el seguimiento de las huelgas.**

El personal ha enviado un mensaje claro al Departamento de Educación, que sigue sin dar respuesta a las peticiones que hemos reivindicado durante las huelgas. Por lo tanto, **seguiremos con las huelgas convocadas para febrero.** 19 y 20 de febrero en cocina y limpieza, 26 y 27 de febrero en profesorado.

Las principales reivindicaciones de las huelgas son: avanzar en las medidas de rejuvenecimiento de las plantillas, recuperar el poder adquisitivo, garantizar el empleo, mejorar licencias y permisos e implantar mejoras en salud, euskara y coeducación. En el profesorado, entre otras cosas, bajar las horas lectivas y reducir la burocracia, y en cocina y limpieza, definir funciones, adecuar categorías y poner límites a la privatización.

¡Lo estamos haciendo bien, trabajadoras, estamos fuertes! ¡Tenemos que seguir con la dinámica de la huelga y llenar las calles hasta que el Departamento de Educación dé una respuesta adecuada a nuestras reivindicaciones, para llegar a nuevos convenios laborales! **Tenemos claro que con la movilización de los y las trabajadoras conseguiremos una negociación real para mejorar nuestras condiciones laborales.**

Por ello, junto con la dinámica de movilización y huelga presentada por los sindicatos LAB, STEILAS, ELA y CCOO, os convocamos a participar en las **concentraciones que organizaremos el día 18 de febrero por la tarde** en las siguientes ciudades y pueblos:

- **En Gipuzkoa:** Donostia, Hernani, Arrasate, Beasain y Orereta.
- **En Bizkaia:** Bilbao, Durango, Gernika, Igorre y Balmaseda.
- **En Álava:** Vitoria-Gasteiz y Llodio.

Tenemos que seguir firmes en febrero, todas a la huelga! Todas a la calle!

LAB


steilas

ELA
EUSKAL SINDIKATUA


irakaskuntza